

# ENPRESAK BERTATIK BERTARA BISITATZEA: TURISMOA ETA KULTURA GARATZEKO AUKERA GOIERRIN ETA EUSKADIN

**Tesiaren egilea:** Galder Guenaga Garai

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Ekonomia Aplikatua I

**Tesi-zuzendaria:** Mikel Zurbano Irizar

**Tesiaren laburpena:**

Ikerlan honetan, turismoaren gaur egungo nondik norakoak eta nolakoak aztertzen eta azaltzen ahalegindu gara; nolabait ere, egungo errealitate dinamikoa ulertzeko paradigma turistiko berri bat eratzen saiatu gara. Horretarako, egungo makrosistema sozioekonomikoa «biluzi» dugu eta, haren baitan, turismoaren bereizgarri nagusiak bistaratu. Gure ustez, egungo makrosistema sozioekonomikoak bost bereizgarri ditu: 1) globalizazioa; 2) postfordismoa eta postmodernitatea; 3) iraunkortasuna; 4) IKTak eta Internet; eta 5) esperientzien ekonomia edo gizarte emozionala. Eta nabarmendu dugu bost koordenatu horiek zedarritzen dituztela turismo garaikidearen nondik norakoak eta nolakoak ere. Areago, iradoki genezake ezen turismo industrial *bizia* —enpresak bertatik bertara bisitatzea— egoki txertatzen dela paradigma turistiko berri horretan.

Horrez gain, ordea, paradigma turistiko berri hori «marko teoriko»tzat hartuta, turismo industrial *biziak* Goierri eskualdean eta orobat Euskadin izan dezakeen potentziala ere aztertu dugu. Lehenik, enpresak bertatik bertara bisitatzea produktu turistiko-kulturaltzat hartuta, nazioartean jazo diren esperientzia eta kasu arrakastatsu batzuen berri eman dugu (Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, Italia, Portugal, Katalunia, Toledo, Alacant, A Coruña, Cádiz). Bigarren, Goierri eta Euskadin, turismo industrial *bizia* garatzeko dagoen —*egon litekeen*— eskari potentziala miatzeari lotu gatzazkio. Helburu hori lortzeko, batetik, Goierriko eta Euskadiko 603 biztanle eta bisitari inkestatu ditugu, enpresak bertatik bertara bisitatzeko *balizko* aukeren inguruko pentsamendu eta iritziak biltzeko. Bestetik, Euskadiko 28 enpresa bertatik bertara bisitatu ditugu, EHUko 673 ikaslerekin batera, eta ikasle bisitari guztiei bina inkesta betearazi dizkiegu: bata, enpresa bisitatu baino lehentxeago; bestea, enpresa bisitatu berritan. Helburua izan da bisita aurretik eta ondoren ikasleek (bisitariak) dituzten iritzi, sentazio, emozio eta jarrerak kontrastatzea. Azkenik, Goierri eta Euskadin turismo industrial *biziak* izan lezakeen eskaintza identifikatu eta arakatzeko asmoz, Euskadiko 86 enpresa inkestatu ditugu (35 enpresa Goierrikoak

eta gainerako 51 enpresak beste eskualde batzuetakoak). Industria *bizia* miatu dugu, beraz, enpresak berak baitira —*izan bailitezke*— «produktu»: enpresek ateak bisitariari zabaltzeko izan ditzaketan arrazoiak, interesak eta moduak (baita errezelo eta mugak ere) aztertu ditugu.

Ondorio gisa, argi dugu ezen bai Goierrik eta bai, oro har, Euskadik ere turismo industrial *bizia* garatzeko potentzial handia dutela, eta halako programa bat abiarazteak gehiengo zabalaren oniritzi eta babesa bilduko lukeela. Izan ere, eskariaren ikuspegitik (tokiko herritarren eta inguruko bisitarien aburuz), ez dago zalantza handirik halako programa baten erakargarritasunari, bideragarritasunari eta onurei dagokienez. Eta eskaintzaren ikuspegitik ere (Goierriko eta, oro har, Euskadiko enpresen iritziz), badira potentziala, gaia eta aldeko jarrera, turismo industrial *biziarekin* lotutako ekimen bat abiarazteko, nahiz eta beharrezkoak diren konprezio-maila handiagoa, batetik, eta babes eta gidaritza instituzionala, bestetik. Hortaz, ikerlan honek, albo-ondorio edo zeharkako ekarpen gisa, «produktu» turistiko-kultural baten ernamuina utzi digu. Badirudi lehengai edo baliabide egokiak esku-eskura ditugula eta, orain, sukalde-lanari heltzeko garaia dela.